

## PAKISTAN

# RAKAPOSHI-ren magalean

**Amaia Elozegi**

**R**AKAPOSHI-ren magalean, Karakorumeke gailur erraldoietatik datorren urak emankor bihurtzen duen bailara ederra zabaltzen da. Udazkenean,, zuhatz eta zuhaisketako hamaika koloretako hostoak, mendi idorren kolore marroisekin lehian aritzen dira. Neguan, izotza eta elurraren zuritasunak, bailara osoa birijintasunean murgiltzen dute. Udaberrian, fruitu arbol eta zuhamuska guztiak harrapaladan loretzen dira, edertasunez blai. Eta udan, neguko hotza uxatzen duen eguzki beroak urtzen duen elurraren urak, luze-zabal guztian berdetzen du bailara.

Sorgin, deabru, mamutzar eta txamanek beste munduarekiko harremanari tinko eusten diote, eta Hunzatarrek begirune eta beldurrez kontatzen dituzte izaki horiekin izandako pasarteak.

Ezezagun bezain ederra, hurbil bezain bakartia, goxo bezain basatia da Hunza bailara.

Duela hamar urte amaitu zen Karakorumeke bideak, gizarte berrirako atek zabaldu zizkion bailarari; baina ate beretik, aintzina kultura aberats eta bakana galtzen hasi da. Txinako Xinjiang probintziarekin du muga iparraldean, Chitral bailara du mendebaldean, eta Kohintan eta Kaghan bailarak hegoaldean. Ekialdean, Ladakh eta Kashmir lurralde okupatuak daude, oraindik orain beren independentziaren alde borrokan ari direnak. Eta guztia, nahi izan ala ez, Pakistanen menpe dago gaurregun. 900 urtetako autogobernu eta 47 urtetako independentziaren ondoren, Pakistanen hatz-parretan erori zen Hunza 1994ean. Betidniko Mir edo erregeak bertan behera utzi behar izan zuen erregetza, eta Karakorumeke bideak dakarren turismoak kili-kolo jarri du bere izaera eta izatea.

### Historia apur bat

"Zeta bide" preziatuaren ibilbidean kokatua dagoen Hunzak betidanik izan ditu merkataria, kontrabandista eta karabanen bisitak, baina bakanak eta noizbehinkakoak izan dira, ingurunearen orografiak ez baitzuen beste ezertarako erraztasunik eskaintzen. Alejandro Handia bertatik pasatu

zeneko ondorengoak omen dira begi argi eta ile horidun hainbat hunzatar. Ez dute, ordea, beren gizartea zuzentzeko kanpotarren beharrik izan. Herriak hautatutako Mir edo erregea arduratu izan da herria gobernatzeaz eta berak hautatu izan du erlijioa ere. XI. mendean islamismoa iritsi zenetik, ordea, ismaili adarraren jarraitzaileak dira hunzatarak. Britaniarren inbasioaren aurre-



**Hunzaren atarian**





**Hunza  
bailara**

an, ezer gutxi egin ahal izan zuten, eta Mirak bailara gobernatzen jarraitu bazuen ere, ingelesak menpe egon ziren 200 urtez. 1947 an, erlijioa zela eta, Indiako musulman eta hinduak banatu eta Pakistan eratzea erabaki eta ingelesak alde egin zutenean, iparralde osoa, Hunza barne, noraezean geratu zen, gobernuak ez baitzekien denak ziren lurralde haiekin zer egin. Orduantxe erabaki zuen Hunzak independente izatea, eta bertakoen hitzetan, munduko inongo mapa zein liburutan agertu ez den estatu independente bakarra izan da. Historia tristea bezain aberatsa.

## Hizkuntza

Burushaski da bertako hizkuntza ofiziala eta bailarako hiriburua den Karimabad eta inguruan hitzegiten dena. Azken urteotan gramatika txiki bat eta hainbat liburu argitaratu da burushaskiz. 150 Km. eskax duen bailaran, ordea, badira beste hiru hizkuntza ere, burushaskirekiko zeharo ezberdinak guztiak ere. Iparraldean, Gojal aldean, Wakhi hitzegiten da, mugan duen Xinjiang probintzian, Tajikistanen eta Afganistango zati batean hitzegiten den hizkuntza bera, eta bertako biztanleak, antza, nomadak izaki, noizpait iparraldetik etorri eta Hunzan kokatu zirenak dira. Hegoaldean, berriz, Shina hizkuntza hitzegiten da eta Hunzatic kanpo geratzen den Gilgit hiriko hizkuntza ofiziala ere bada. Laugarren hizkuntza Bereski deritzana da eta musikarien hizkuntza da soilik. Musikariak, behe klaseko biztanletzat jo izan dituzte betidanik eta beste biztanleetatik aparte bizitzeaz at, hiz-

kuntza berezia dute. Bitxia da, bestalde, zeharo isolaturik eta inongo harremanik gabe bizitu izan diren beste zenbait bailaretako musikariek hizkuntza bera darabilte jakitea. Antza, noizpait elkarren artean harremanak izan zituztenaren seinale garbia da. Hizkuntzalarientzat aparteko ikerketa gunea zalantzarik gabe.

## Jendea


Larruazal iluneko jendea, ile hordun eta larruazal zuriko jendearekin nahasia ageri da. Jende gogorra, indartsua, mendien gogortasunari eta neguaren hotzari aurre egiteko gai dena bizi da bertan. Islamismoak, oro har, emakumeak baztertu eta etxe zulora makurrarazi baditu ere, ismailiar emakumeek tinko eusten diote beren izaerari. Hunzako emakumeak ez dira inola ere gizonak baino gutxiago, eta beren kolore bizidun jazkera eta berezko edertasunarekin, biztanlegoaren erakarpen nagusi bilakatu dira.

Beren bizi iraupenagatik ere ezagunak dira hunzatarak, ia herri bakoitzean bai baitago mendea bete duen norbait. Pakistanen bataz besteko bizi iraupena 56 urtekoa den bitartean, 80 urtetik gorakoa da Hunzan. Bizitza luzea elikadurari zor omen diote gehienbat, fruta eta barazkitan aberatsa baita bailara; eta elikadurari, ezinbesteko "Hunzako ura" (bertan egindako ardoa) gehituz gero, erraz harrapatzen omen dituzte 100 urte. Dena den, isolatuak bizi izatetik, merkataritzaren eta gizarte modernoko eraginaren menpe egotera pasatu direnean, gauzak nahi baino gehiago aldatzen hasi dira hunzatarrentzat.



**Karimabadeko  
emakumeak**





**Familiaren dendetxoa**

**Gizonak beren eguneroko eginbeharren**

## Karakorumeko bidearen eragina

1986ean gurutzatu ahal izan zen ofizialki Pakistan eta Txina arteko muga, hogeitau urte luze iraun zuen eta hirurehun hildako baino gehiago utzi zuen injinaritzako lan ikusgarria amaitu ondoren. Islamabad eta Rawalpindiko lauatadetatik, amildegia sakonean doan Indo ibai handiaren ibilbidea jarraituz, 4700 metrotara dagoen Kunjerab lepoina iristen da, sugeen modura biraka doan 600 km pasatxoko errepide luzea. Betidanik hirietatik eta zibilizazio berrietatik urrun bizi izandako jendeak, bat batean, egun bateko bidean izan du hiria. Aldaparik malkartsuenetan zintzilik doa errepidea, alboan inongo babesik gabe ibaiaren orru ozena entzuten delarik. Maiz, maizegi, luitiek errepide zati bat desegin eta estaltzen dute eta amaigabeko lana bilakatzen da errepidearen konponketa. Eta bide osoan zehar, Karakorom eta Himalaiako gailurrak dira zaindari, noizbehinka beren glaziareen mihiak erakutsiz, aldika osotasunean agertuz, beti zaindari. Bideak, ordea, Kanpotarren ikusmira eta jakinmina asetzeko adinako txoko eta ingurune ezkutuak begibistan jartzeaz gain, geure gizarte kutsatuaren eragina ere ekarri du. Lehen, lurrak emandako produktuez hornitzen ziren; gaur egun, animalien koipea ordez, prozesatutako koipea darabilte; sutarako egurraren ordez, toki askotan, kerosenozko berogailu kutsadorrak darabiltzate; janariak gozatzeko, masusta moduko fruitu zuri bar uretan egosi ondoren geratzen zen zukua erabili ohi zuten duela gutxirarte, gaur egun, ordea, prozesatutako eta birfindutako azukre zuria darabilte; gatza, lur jakin bat lehortuz lortzen zuten, gaur kamioietan iristen da; teari, intxaurrek txikituz ateratzen zen esnea gehitu ohi zio-

ten, egun, lau egun behar ditu kamioiak Lahore-tik esnea garraiatu ahal izateko. Espeziak ere ez ziren hunzatarren elikaduraren oinarri, kanpotik ekartzen hasi ziren arte. Eta guzti hau hamar urteren buruan gertatu bada, zer ez da aldatuko ondorengo urte eta hamarkadetan?. Jadanik, orain arte ezagunak ez ziren gaisotasunak agertzen hasi dira eta hunzatarren bizi iraupen luzea kolokan jarri dute.

Karakorumeko bideak turismoa ere ekarri du, paradisu ezkutu eta galduen bila dabilen turismoa. Karakorumeko gailur garaiekin eskuratu nahian datoz batzuk, bailara eta mendi kasko apalagoak zapaldu eta ezagutzeko asmoz beste batzuk, eta kotxez mugitzen den turismo erosoa hautatzen dute hirugarren batzuk. Dirua uzten dute guztiek eta diru errazaren truke edozer gauza egiteko prest dago hainbat. Bide berriak, hotelak, ostatuak, jatetxeak eraiki dituzte harrapaladan iristen ari den turismoari erantzuteko, baina inongo proiektu zein planifikaziorik gabe eraiki ere. Bailara itsusten duten eraikuntza zatarrak ikus daitezke han-hemenka. Populazioa ere haziz doa eta, hazkuntzari eta haziz doan turismoari aldi berean aurre egitea gehiegitxo ez ote den galdetzen diot neure buruari. Deforestazioaren lehen arrastoak ere sumatzen hasi dira jadanik. Halere, jendea bizkorra da eta ez du arazo guztia inoren bizkar gainean uzteko asmorik. Gauzak ahal bezain ongien egin nahi dituzte, horretarako aukerarik baldin badute, bederen. Halere, aldatetak, ezinbestekoak dira.

## Kultura, ohiturak

Hunzatarren kulturaren zati garrantzitsua bete izan du musikak; musikaz lagundurik ospatu dituzte beren festak, udaberriaren

etorrea, etab; musikaz lagundurik txamana beste munduarekin, izpirituekin harremanetan jartzen da; musika bidez, komunikatu ohi ziren bailara batetik bestera eta musika izan da herrietan bandoaren ordezko. Musika jakin bat entzunez gero, jendeak bazekien zer adierazten zuen: poloko partidua, ospakizun berezi bat... Polo kirola ere musikari lotua egon da beti. Hunzatarren esanetan, musikarik gabe ez dago partidurik. Musika jokaldien arabera aldatuz doa, bareago edo ozenago bilakaturik. Garai batean musika ozena zen, urrunetik entzuteko modukoa. Islamismoaren etorrerarekin, ordea, baztertuz eta ixilago bilakaturik joan da. Izan ere, Coranaren esanetan, Jainkoarekiko arreta gal arazten duen oro debekatua dago. Hunzatarrek ez diote debekuari jaramonik egin baina ezinbestean beren ohiturak aldatu behar izan dituzte. Musika ixilagoa da orain, tristeagoa, eta hainbat musika tresna ere aldatu behar izan dituzte musika tresna zatatsuen ordez, ixilagoak bereganatuz; hala nola, armonioa erabiltzen hasi dira, toki itxitan jotzeko aproposa baita.

Garai batean, emakume musikariak ere bazeuden, eta dantzariak emakumeak izan ohi ziren beti; gaur egun, ordea, Islam-aren debekuz ez dago ez emakume musikari ez dantzariak, eta ostera, emakumez jantzita dantzatu ohi dute hainbat gizonen. Tristeagoa da oraindik, Hunzan musikariaren azken belaunaldia hiltzear dagoela jakitea. Izan ere, erlijioaren eraginez baztertuta izan den musikariaren lanbideak ez baitu ondorengorik. Piskanaka, musikariak baztertuz joan dira, hango jendearekin ezkontzeko aukerarik ez izate arteraino. Ondorioz, musikariak ez diete beren izate txiro eta triste beren semealabei irakatsi nahi izan. Eskoletan ere ez da musikarik irakasten. Musikarik gabeko belaunaldi baten aurrean ote gaude?.





Argazkiak: Amaia Elosegi

Zorionez bada horretaz jabetu eta lanean ari den jendea: informazioa bildu, musika grabatu eta ikerketa sakonak burutzen ari den jendea, Hunzako musika bizi iraun arazi eta zabaldu nahian...

### Emakumeak eta bere jantziak

Jazkerei dagokienez, gizarte gehienen modura, emakumeak dira ohiturei eutsi dieten bakarrak. Karakorumeko Bidea egin zutenetik, gizonezkoak, beren jazkera alde batera utzi eta lehenengo munduko herrialdeko gizonezkoen jazkerak erabiltzen hasi dira. Emakumeak, ordea, bordatutako kapela dotorea daramate buruan eta zapi bat gainetik, eta soinean ere bordatutako zapiz egindako jantziak. Orrazkerari ere tinko eusten diote, alde banatan erortzen zaizkien bi mototxa edo txikorda orraztuz. Berezko edertasuna are ederragoa da jazkera horiekin.

Sorginak ere bizi bizirik daude Hunzan, baina Euskal Herrikoen aldean, sorgintzarrik, gaiztoak dira, beren boterearen jabe direnean, kaltea eragin baitezakete. Horregatik, egunez, emakumeak oinez doazenean gizonezkoen atzetik ibiltzen badira ere, gauz debekatua dute atzetik joatea, ezjakinean bateren bat sorgina suertatu eta aurrean doan senarra gogor eta tinko helduko duelakoaren beldurrez. Izan ere, halakorik gertatuz gero, alegia, sorginak norbait gogor helduz gero, bere boterearen bidez kutsatu eta normalki bizpahiru egunetara hiltzen baita. Sorginek, beren botere eta indarra, istripuz hildako pertsonaren baten haragia janez lortzen dute. Eta sorgin izatea, belaunaldiz belaunaldi, amarengandik alabarengana iragaten da. Bateren bat sorgina dela jakitean, bere alaba sorgin bilaka ez dadin, otoiak eta erritual bereziak egiten dituzte gizonek, baina alferrik izan ohi dira gehienetan. Dena dela, sorginak gaiztotzat jotze hau, gizonezkoen beldurrak justifikatzeko modua ez ote den galdetzen diot neure buruari, alegia, matriarkatua nagusi izan zen gizarte bateko ondarea ez ote den.

Bestalde, hezkuntzari buruzko ardurua handia dute hunzatarrek. Beren etorkizuna hezkuntzaren menpe dagoela argi dakusate eta iparralde osoko alfabetatu kopurua % 14koa besterik ez bada ere, Hunzan haurren erdiak baino gehiago eskolatuak daude. Hainbat haurrek ingelesez jasotzen dituzte eskolak, datorkien turismoaren aurrean, ingelesa jakitea ezinbestekoa izango zaiela ohartuz. Dena den, gainontzeko eskolak Urduz dira (Pakistango hizkuntza ofiziala), beraientzat erabat arrotza den hizkuntzan, alegia. Badute oraindik lan franko egiteko!

Eta Rakaposhiren elurra urtzen hasten duenean, udaberriaren etorrera adieraziz loretzen dira muxika, aranondo, gerezio, sagarrondo eta gainerako fruitu arbolak. Eta bailara osoa, neguaren hoztasunetik esnatuko baililtzan, berdetuz doa, gailurretako elur eta mendi marroiketarik bereiztuz. Rakaposhi eta bere anaiarrebek bakarrik gordetzen dute urteetako bailaren historia, beraiek bakarrik dute historia osoaren jakinduria beren altzotan. Eta eguzkiak bailaratik alde egiten duenean, beren kasuko eguzkipean jarraitzen dute, iluna nagusitzen den arte. Baina ez dute lorik hartzen, beraiek baitira Hunzaren zaindari.

### RESUMEN

## A los pies del Rakaposhi

EL Rakaposhi (7.788) ofrece en sus laderas unos valles atractivos en las cuatro estaciones: colorido, blancura virginal, flores y frutos y ... luz.

Es el país de los hunzas, cuya capital es Karimabad, en la antigua "ruta de la seda", hoy sustituida por la Carretera del Karakorum.

Es un pueblo vivo y que defiende sus particularidades: en 150 Km. de largo, tres idiomas, una esperanza de vida de 80 años, las mujeres con vestidos llenos de colores, el deporte del polo, brujas... y a todas horas, música, que desgraciadamente está, siendo silenciado el fundamentalismo islamista y está degenerando por la introducción del turismo y el comercio, que entran por la carretera que los une con Rawalpindi e Islamabad.

